

# «Gobernua osatzeko formulak ezin die aterik itxi bestelako akordioei»

**Itxaso Atutxa** • EAJren BBBko presidentea

Aukera guztiak «zabalik» daudela azaldu du Atutxak, eta helburua gobernu berriari «egonkortasuna» ematea dela; PSE-EErekin ituna egitea, berriz, «kanpotik ikusita dirudien baino zailagoa» dela esan du.

**Gotzon Hermosilla** Bilbo

EAJren BBB Bizkai Buru Batzarreko presidente Itxaso Atutxa (Bilbo, 1967) BERRIAREN galderei erantzuten ari zitzaion une berean, Sabin Etxeko beste areto batean bilera egiten ari ziren EAJren eta EH Bilduren ordezkariak, Eusko Jauriaritzaren erateaz berba egiteko antolatutako bilera sortaren lehenengo batzarrean. Estreinatuko bilera sorta hori asteartean amaituko da, EAJren eta PPren arteko batzarrekin.

Bizkaian EAJren eta EH Bilduren artean ezbaian egon den azken legebiltzarkidea koalizioak eskuratuko zuela jakin aurretik egin da elkarrizketa. Albiste hori baieztatu ondoren, BERRIA saiatu da Atutxarekin elkarrizketa osatzen, gai horri buruzko galderak egiteko, baina EAJk erantzun du ezinezkoa zela.

**Zein da EAJren hauteskunde arrakastaren gakoa?**

Egia esateko, ez dakigu ziur. Foru eta udal hauteskundeetan ostean antzeko balorazioa egin genuen: berez, jeltzalea ez den jende asko hurbildu da guregana, abertzaleak bai baina oso ideologizatu eta dauden herritar asko. Berdin ematen digute botoa Ezkerraldean, Uribe Kostan zein Lea Artibain, oso eskualde desberdinak izan arren: Guretzat, pozgarria da, noski, baina ez du azalpen errazik. Dena dela, pertsona horietako askok ekainean bestelako botoa eman zuten. Orduko hartan, jende askok Madrileko gobernabidea zuen buruan, eta Espainiako alderdiei eman zieten botoa, baina bertakoaz, etxekoaz berba egiten dugunean, bertakoei ematen diegu konfiantza.

**Nola baloratzen dituzue gainerako alderdiek izan dituzten emaitzak?**

Nik espero nuen EH Bildu bigarren indarra izatea; ez nuen sinesten hemengo hauteskundeetan jendeak botoa Elkarrekin Podo-

mosi emango zionik. EH Bilduk gorakada garrantzitsua izan du azken beharakaden ostean. Otegiaren hautagaitzak ez dut uste mesederik edo kalterik egin diotnik, baina kanpaina eraginkorra eta erakargarria egin dute hain ezagunak ez ziren hiru hautagai emakumezko aurkeztuta.

Elkarrekin Podemosi dagokionez, azken buruan, Espainiako alderdi bat da, eta erabakitze eskubidea onartzen duten arren, Espainian gelditze onartzen dute eskubide hori. Oraindik ez dauka sustrai nahikorik herri honetan, eta uste dut haien emaitzak ez direla hain onak izan, euren mezua zelako herri honek al daketa eskatzen duela eta eurak izango zirela al daketa hori gauzatu zutenak EAJ Ajuria Eneñik botatzeko. H legebiltzarkiderek aukera gutxi dute horretarako.

**Eta PSE-EE eta PP?**

Idoia Mendiak berak esan du PSE-EEren emaitzak oso txarrak izan direla. Itzeleko kolpea hartu dute, baina eraman duten ibilbidearen beste urrats bat baino ez da. Uste dut urteak daramatzatela jendearengandik aldentuta. Kanpaina honetan gaitz eduki dute mezua nori egokitu eta nori zuzendu. Euskararen gaiarekin egin dutena larria iruditzen zait: milaka boto gutxi batzuen truke horrelakoak egin behar badira, uste dut politikaren neurria galtzea dela. PP, aldis, Euskadin oso gauza txikia da. Espainiar porrokatuek baino ez daukate PP ikur moduan. Ez dira errealtatean bizi, eta beldurraren kanpaina egiten dute, baina horrek ez du funtzionatzen jendea heldua delako.

**Orain Jauriaritza osatzeko negoziazioei ekin diezue. Gobernu itun baten atzetik al zabilzate, edo zuzentzat nahikoa da unean uneko akordioak lortzea?**

Ez dugu ezer baztertzan, baina egonkortasuna lehenesten dugu. Unean uneko akordioa, orain

geometria adagarrria deitzen duten hori, oso polita da Zientzia Politikoetako fakultateetan aztertzeko, baina eguneroko lanean oso gaitza izaten da, eta gobernu batek lasaitasuna eskatzen du. Egia da lasaitasun hori modu askotara lor daitekeela: gobernu koalizio batekin, edo, legealdira ko akordio batekin, gauza batzuk adostuta eta desadostasunak zeintzuk diren zehaztuta.

**Aukera guztiak zabalik daudela esan duzue behin eta berriz, baina jakitun zarete hauteskundeak ziurtzat ematen zutela ituna PSE-EErekin.**

Nik badakit kanpotik aukera hori oso erraz ikusten dela, baina konstante hartu behar da PSE-EEren egoera oso berezia dela, are gehia-

hura eraman daitekeen orain daukagun egoerara. Benetan, aukerak oso zabalik ikusten ditugu. **PSE-EEren kanpainaren oinarria izan da bere burua aurkeztea agenda subiranistaren kontrako berme gisa. Horrek ez du zailtzen akordioa?**

Séguru asko, horrelako gauzak akordiotik kanpo geldituko lirarteke. Dena dela, bederatziz legebiltzarkide atera duenak 29 [28, azken zenbaketan] atera dituenari esatea eurek eramango dutela herritarren iritzia, ausardia handia da. Zer ari dira esaten, guk ez dakigula guri botoa eman diguten ia 400,000 herritar horiek zer nahi duten? PSE-EEk badaki gu aberzaleak garela eta estatus berri baten bila goazela, ez orain, aspalditak bainik. Beste harreman bat behar dugu [Espainiak]

[Espainiak] Estatuarekin, eta badakit sozialistek ez dutela hori ikusten, baina lehenbizi herriari galdetu beharko lioke eta ikusi benetan gehiengoak zer dioen: eurek proposatzen dutena, edo Legebiltzarraren gehiengo oso handia osatzen duten hiru alderdiek defendatzen dutena.

**Andoni Ortuzarrek BERRIARI emandako elkarrizketan «herri akordio handiak» egitearen egokitasuna nabar-**

**mendu zuen, eta emaitzak baloratzerakoan berriro aipatu zuen ideia hori. Gobernabidea eta herri akordio horiek esparru independenteak dira? Batekin gobernu ituna egiteak ez du zailtzen bestearekin herri akordioa sinatzea?**

Nik ez nituzke lotuko. Gerta liteke alderdi berarekin gobernu ituna egitea eta horrelako akordio bat ere sinatzea, edo ez. EH Bildurekin gobernu ituna lortuko bagenu ere, argi dago Elkarrekin Podemos eta PSE-EE ere sartu be-

harko lirartekeela akordio handi horretan; eta PSE-EE baldin bada legealdira babesa ematen diguna, berdin. Gobernu sendoa osatu eta bermatzeko formulak ezin dio aterik itxi beste gai batzuetan akordioak lortzeari.

**Hauteskunde kanpaina honetan inoiz baino gutxiago hitz egin da bake eta elkarbizitzaz.**

Egia da hori. Baina, hala ere, oso gai garrantzitsua dela uste dut. Guk kanpaina honetan behar bada gehiago hitz egin dugu ekonomiaz, lanaz eta abarrez, eta gainera jendeak hori eskatzen zigun, baina uste dut hori lotuta dagoela elkarbizitzarekin. Nik ezin ditut bata eta bestea aldentu. Ni ziur nago hurrengo legealdian urratsak egingo ditugula arlo horretan. PPTik ez dut askorik espero, baina uste dut sozialistek horretan sartu beharko dutela. Ez dut inoiz ulertu zergatik utzi zuten Bake eta Bizikidetzaren Batzordea, eta uste dut gaia berriro hartzeko unea dela.

**Agintaldia amaitutakoan, lau urte barru, nolako egoera gustatuko litzaizuke topatzea?**

Hasteko, gustatuko litzaizuke krisialdi honetatik irten garela eta beste egoera batean gaudela ikustea. Eta gero, nahiko nuke herri honi galdetzeko aukera zehatza dagoela ikustea; egingo dugulako, edo, behintzat, egiteko aukera onartzen zaigulako.

Bi kontu horiez gain, badago aparteko beste zerbait lortzea gustatuko litzaizukeena, eta neurri zehatzekin baino gehiago politika egiteko moldearekin du zerikusia. Orain denok gaude ordezkatuta, ordezkaritza zabalak dira gainera, indar politiko berri bat ere badago, eta gustatuko litzaizuke alderdien arteko harremanak normalak izatea, Espainian ematen ari diren ikuskizunetik aldentuta.

**Espainiako egoera aipatu duzunez, nola ikusten duzue hori gaur egun? Zuen burua Espai-**



**PSE-EEk euskararen gaian kanpaina honetan egin dutena larria iruditzen zait; politikaren neurria galtzea da»**

**«Kanpaina gehiago hitz egin dugu lanaz eta ekonomiaz, baina ziur nago bizikidetzan ere urratsak egingo ditugula»**

**«Espainiako egoeran, zorionez, ez dugu zeresanik; hara goaz hemengoak defendatzera, ez euren konpontzera»**



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS

**niako Gobernua osatzeko aha-  
legin horietatik kanpo kokatzen  
duzue?**

Eragiteko aukera askorik ez dugu, euren sokakoak ez garela-ko eta, normalean, horrelakoetan ez dugulako parte hartzen. Hemen-ngo alderdi legez ikusten gaituzte, eta horrelakoetarako ez gaituzte kontuan hartzen. Bestalde, bost diputatu baino ez ditugu; egoera batzuetan garrantzitsuak izan daitezke, baina bost baino ez dira.

Espainiako egoerari dagokio-  
nez, zorrionez guk horretan ez  
dugu zeresanik; hara goaz he-  
mengoa defendatzera, ez euren-  
a konpontzera. Hala ere, egoerak ez  
nau pozten: PPKoek denbora  
gehiago ematen dute epaitegietan  
lanean baino, eta PSOE, alderdi  
historikoa, zelan jausi den ikustea  
ez da pozgarria.

**Abenduan hauteskundeak  
egingo dira berriro?**

Igandean banituen apostu bi  
eginda, afari bat ezetz hauteskun-  
deak berriro egin, eta geroago  
beste bi onartu ditut, baina ez  
daukat daturik edo ziurtasunik  
hala izango dela pentsatzeko.  
Ikusiko dugu PSOEn sortu den  
korapiloak eramango ote duen  
abstentziora edo ezezkoari tinko  
utsiko dioten. Baina berriro hau-  
teskundeak badaude, non geldi-  
tuko da Alderdi Sozialista? PPren  
eta Podemosen arteko polariza-  
zioa ikaragarria izango litzateke,  
eta horrek hemen ere eragina  
izango luke.

**Non ikusten duzu Katalunia lau  
urte berri?**

Ez dakit. Katalanek urtebeteko  
'epea jarri dute orain, oso sendoa,  
eta badute gehiengo bat hori au-  
rrera ateratzeko, baina ikusi be-  
harko da tarte horretan Madrilen  
nor egongo den gobernuan. Eta  
oso garrantzitsua izango da Al-  
derdi Sozialista zelan gelditzen  
den ere, beharbada PSCren jarre-  
rak eragin dezakeelako beste ja-  
rrera bat Madrilen. En Comu Po-  
demek ere zer jarrera hartuko  
duen ikusteko dago; gauza bat  
delako Diadaren manifestaziora  
joatea edo erabakitze eskubi-  
dearen alde agertzea, eta beste bat  
oso desberdina mugimendu in-  
dependentistarekin bat egitea.

**Berezia izango da aurtengo Al-  
derdi Eguna?**

Aukera baliatuko dugu ospatzeko  
eta alderdikideei eskerrak emate-  
ko, baina gure jendeari lasaitasun  
mezu bat ere eman nahi dugu:  
emaitzak onak izan dira, baina  
orain horien kudeaketa ona egin  
behar da, besteekin egin ere. He-  
rri hau askotarikoa da, eta eran-  
tzukizunez jokatu behar dugu.